



Maria Villanueva maistraren eskolaumiak (1917)

2 *S*asoi baten Ermuan bi eskola besterik ez euazen, bata Sallabenten ta bestia plazan. Azken hau eitxeko aurrekontuak 46,719,95 pezetara igon eban ta 1904. urtian inaugurau zan. Urte horretako abuztuaren 28xa egun haundixa izan zan herritarrentzat. Eskolok bedeinkatu ta gero txapliuak bota, txistua jo ta bertsuak kantau zian. Arratsaldian erre-freskua banatu zan herritar guztixen artian.

Behian frontoia, lau urtetik gorakuen eskola txiki-xa, Kaja Ahorrosa ta "foralak" euazen. Lehenengo pisuan nesken gelia, plaza aldera, ta mutillena ostekaldera. Honen goixan maixu-maistren etxia.

Idazten, irakorten ta matematiketako lau erreglak ikastiaz gain, arratsaldietan eskuetakua eitxen zan: puntu kruza, bainikak, puntillak, festoiak, kojiñak...

Baiña gurasuak kejau eiñ ei zian, horrek gauzok etxian be erakusten ziala esanda, ta ume asko Sallabenteko eskolara bialdu zitxuezen. Han eskola eskolia emoten zan: gramatika, aritmetikia, historia naturala, dibujua, geografixia...

Baiña bai baten ta bai bestian maixu-maistrak gorrak zian. Buruz ikasi bihar izaten zan dan-dana, ta ez zekixanantzat makilla zabal bat zain egoten zan.

Batzuk, formal ibilli arren be, itxelak blastiuak hartuta juaten zian etxera. Gero etxekuei zelan esplikau, maixuak edo maistriak beti ekan eta errezoia.

Haren makillasaldiaren ondoik etxekuen etorre-nez, ixillik egotia onena! Baiña horri be neurrixa hartuta euazenak be baeuazen. Miñ gitxiao hartzeko esperantzan edo, makiñatxo jundakua da eskolara ipurdixan, praken azpitxik, paiñelu ta kantzontzillo zaharrak zabal-zabalik ipiñitxa.

Edozer gauza hoba, maixuan bildurretan eskolen ostekaldeko zerkara salto eiñ eban mutikuaren kasura aillegatzia baiño.

Goiz erdixan olgatzeko eten txiki bat eitxen zan. "Txirikilletara", "potxisetara", "tortolasetara", soka saltuan edo alkarri bultzaka... baiña segiduan agortzen zan denporatxu hori, eta barriro eskolara.

Han barruan ezin zan euskeraz eiñ ta erderaz ostera maixu maistrok, ze beste iñork ez zekixan. Erderazko liburu haundixak ipintzen jakuen umiei aurrian ta jakin haretan zer ipintzen eban! Euskeraz eitxen ebanari eraztun bat emoten jakon ta barixekuan, eskolia amaitzerakuan, eraztun hori ekanak txikita edo txakur haundi bat pagau bihar izaten eban multa modura.

Danak be ezin izaten zian egunero eskolara juan. Basarriko biharrak ugaritzen zian sasoian (Ermuko etxe gehixengua basarrixak zian) umia etxian geratu bihar izaten zan etxekuei laguntzeko. Eguraldi eskasa etorrela, danak eskolara!

Erretratuan agertzen dian neskato batzuk 90 urte eiñ barri edo puntu eitxekotan dia. 90 urte ez dianez egunero betetzen, zorixon zorixonak!